





**bilborock**

ROCKA ETA ASKOZ GEHIAGO !  
MUCHO + QUE ROCK !

# **PROGRAMAK 23**

*#IGANDAYS #DJ LEHIAKETA #IMAGINAUTAK #FEMME*

*#BIDEO-KLIPPA #GAZTESHARE #FRESKURE*



# #IGANDAYS

Gazteentzako kontzertuen ziklo bat da. Igandeetan egingo dira, bi hilabeteen behin, 13:00etan. Gehienak formatu akustikoan izango dira. Emakumeak dituzten taldeetan arreta berezia jarriko da.

Sarreraren prezioa 5 eurokoa izango da aldez aurreko salmentan (entradium), eta 7 eurokoa leihatilan.

Aretoa erabat dohainik eskainiko da kontzertua emateko (C0 tarifa), eta sarreraren irabazien % 100 taldearentzat izango da.

*Parte hartzeko, ezinbestekoa da izena emateko inprimakia deskargatzea eta betetzea, eta [bilborock@bilbao.eus](mailto:bilborock@bilbao.eus) helbidera bidaltzea, gaian "Igandays" jarrita.*



**INSCRIPCIÓN**

# #BIDEO-KLIPPA LOKAL SESSIONS

Bertoko talde eta artistak sustatzeko helburuz, pertsona eta talde gazteei kalitatezko bideoklip bat grabatzeko aukera eskaintzen zaie, erabat dohainik. Bideoklipa Bilborockeko entsegu-geletan grabatuko da. Euren lana areto profesionaletan eta Bilborocken sare sozialetan sustatzeko erabili ahalko dute.


Gainera, programa horrek aukera emango die ekipamendu horretan garatzen diren programetakoren batean parte hartzeko (Bideo-Klippa!, Freskue, Igandays, Bideo-Klippa...). 9 bideo grabatuko dira, eta, ondoren, hilean behin, Bilborocken erabilera askotarako aretoan proiektatuko dira, Bideo-Klippa! programaren barruan.

*Parte hartzeko, ezinbestekoa da izena emateko inprimakia deskargatzea eta betetzea, eta bilborock@bilbao.eus helbidera bidaltzea, gailan "BideoKlippa" jarrita.*



**INSCRIPCIÓN**





# **#FRESKURE**


Bilboko hainbat talde eta bakarlari berrik euren sorkuntzak eta lanak erakutsiko dituzte Bilborocken. Ekimen honen helburua musikari amateurrei espazioak eskaintzea da, euren obra erakutsi dezaten.

Kontzertuak dohainik izango dira, eta urtean 5 egingo dira, ostiraletan, 20:00etan.

Informazio gehiago Bilborock-en telefono-zenbakian (94-4151306), astelehenetik barikura, 10:00etatik 14:00etara bitartean.



**INSCRIPCIÓN**



# #FRESKURE

Parte hartzen duten taldeei honako hauek emango zaizkie:


# 2 kamerarekin grabatutako kontzertua.

# kontzertuaren audioa, pistetan.

# Hori guztia, taldeek ikus-entzunezko material eguneratua eduki dezaten, beste espazio batzuetan eta euren sare sozialetan aurkezteko.

Kontzertua ez da diruz ordainduko.

*2023ko kontzertuetan parte hartu gura duten talde edo bakarlariak euren proposamenak bidali ditzakete Bilborock-en helbide elektronikora (bilborock@bilbao.eus), gaian FRESKURE jarrita. Izena emateko inprimakia: <https://bilbaogazte.bilbao.eus/es/2021/09/13/freskure-bilbao-fresh-musika>.*



**INSCRIPCIÓN**





# #FEMME


Hileroko tertuliak emakume artisten, sortzaileen eta eragin handikoen artean. Ateak itxita egingo dira, Bilborocken, eta bideoan grabatuko dira. Emakume horiek tertulia bat egingo dute eta euren ikuspegia azalduko dute hainbat esperientziari buruz. Hori guztia, FEMME BILBAO komunitateko artisten zuzeneko kanteekin. Bideoak Bilbao Gazteren eta Bilborocken sare sozialetara igoko dira.

Emakume horien lana agerian uzteaz gain, FEMME BILBAO-k beste arrazoi batzuegatik ere balio handia dauka: komunitatea sortzen du, eta hainbat diziplinatan aritzen diren eta elkar ezagutzen ez duten emakumeen artean sinergiak sortzen ditu.

*Parte hartzeko, ezinbestekoa da izena emateko inprimakia deskargatzea eta betetzea, eta bilborock@bilbao.eus helbidera bidaltzea, gaian "Femme" jarrita.*



**INSCRIPCIÓN**



[MIRA AQUÍ EL CONTENIDO!](#)

**Bilbao** Gazte



# #CONCURSO DJ

Urteroko lehiaketa bat da, Euskadin bizi diren 18 eta 35 urte arteko gazteentzat. Helburu nagusia dj gazteen sorkarien balioa nabarmentzea da.

Epaimahai profesional batek gehienez 6 dj hautatuko ditu. Abenduan Bilborocken arituko dira, eta bertan egingo da lehiaketaren finala.

*Inskripzioak azaroaren amaieran egingo dira.*



# #GAZTESHARE

Prestakuntza-programa bat da, gazteei teknologia digitalak baliatzen irakasteko, euren bitartekoak erabiliz edukiak sor ditzaten, tresnak, formatuak, narratibak ezagutu ditzaten, eta euren mezuak hainbat formatutan helaraz ditzaten.

Narratiba eta formatu horiek askotarikoak izan daitezke: podcasta, bideoa, audioa, tresna digitalak eta abar.

*Informazio gehiago eskuratzeko, idatzi  
bilborock@bilbao.eus helbidera, "Podcasta eta  
bideoa" gaiarekin.*






# #IMAGINAUTAK


Imaginautak arte amateurraren eta proposamen egoiliarren arteko Bilborockeko elkargunea bihurtu da. Zerbait artistikoa egiten duten pertsonak (poesia, zinema, musika, dantza, performancea, argazkigintza, komikia, eta abar), sortzen dutena oso barnekoa dela sentitzen badute eta partekatu nahi badute, Bilborocken egiteko aukera daukate.

Bi hilean behin egiten da.

*Parte hartzeko, inprimakia bete behar duzue  
IMAGINAUTAK-en web-orrian.*



**INSCRIPCIÓN**



# bilborock

ROCKA ETA ASKOZ GEHIAGO !  
MUCHO + QUE ROCK !